

Karbono arrastorik gabeko PVC-z eginak dira, plastiko zorrerik gabe doaz eta ohiko segurtasun-mailari mantenduko dute

Kutxabanken zordunketa eta mailegu-txartel berriak ingurumenarekin jasangarriagoak izango dira

- **Aldaketa apurka-apurka egingo da, egun indarrean diren txartelen epemuga amaitzen doan ahala**
- **Iraungitako txartel guztiak Kutxabanken bulego sarean utzi ahal izango dira, birziklapen prozesu osoa kudeatzeko**
- **Finantza-erakundeak klima-aldaketaren kontrako lanarekin duen konpromisoarekin bat dator, izan ere 2020az geroztik karbono-arrasto negatiboa baitu**

2021ko apirilaren 21ean. Kutxabank bere ordainketa-txartelak berritzen hasi da, ingurugiroari kalte txikiagoa egiten dion eredu berria erabiliko baitu aurrerantzean. Txartel berriak karbono arrasto neutroa duen PVC-z eginak dira, produkzio-prozesua karbono isurpenak CO2 xurgatzeko egitasmoen bidez orekatu edo neutralizatu dutenak.

‘CO2 Neutral’ txartel berriak **apurka-apurka jasotzen** joango dira Kutxabanken bezeroak, gaur egun erabiltzen ari diren zordunketa edo mailegu-txartelen epealdia amaitzen doan ahala, eta **plastiko zorrerik gabe** emango dira.

Jasangarritasunaren norabidean eginiko aldaketa honen beste berrikuntzetako bat iraungitako txartelen birziklapen prozesua izango da. Izan ere, erabilitako txartelak Kutxabanken sareko bulegoetan utzi ahal izango dira, daukaten plastikoaren **birziklatze prozesua** bermatzeko.

Honela, Kutxabankek urrats berria egin du **energiaren trantsizioa** eta **ekonomiaren deskarbonizazioa** sustatzeko bidean.

2020az geroztik karbono-arrasto negatiboa du erakundeak, kudeatzen dituen basoek, atmosferara botatzen duena baino karbono dioxido gehiago xurgatzen baitute. Honela, bere ‘karbono aztarna negatiboa’ 12.000 tonakoa da. Gainera, Taldearen banku-sukurtsalak eta lantoki guztiak eguzkiak sortutako elektrizitate berdez baino ez dira hornitzen, eta urtero 6 mila tona karbono dioxido isurtzea ekidin ohi dute.